

**PENSAMENDU POSTMETAFISIKOA?**

Jon Sudupe saiakera egile euskaldunak artikulu bat idatzia du Berria egunkarian titulu honekin: erlijioaren nostalgia. Eta erantzun bat merezi duelakoan nago, eta horretarako nago ni nire filosofia universalistarekin. Badakit zer dioen san Pablok, hau da, kontuz ibili behar dela filosofiekin datozenekin, baina san Pedrok, beste epistola batean, badio nola kristauak beti gertu egon behar duela edozeineri bere fedearen arrazoiak emateko. Jarrai dezadan bada nire filosofia desarroilatzen. Oraingoan nire filosofia lehena, nire metafisikaren zientzia.

Nolabait errateko Jon Sudupek aipatzen ditu gaur egungo filosofiaren olatuaren buruan dabiltzanak, eta erran behar da ezen ez direla oso beroak erlijioa estudiatzean, erlijioabeak direla erran daiteke, positivisten moduan erlijioa arkaismoen artean lurperatu nahi dutela dirudi, eta Habermas ateoak asma-tua omen du pentsamendu postmetafisikoarena, erraten ezen pentsamendu horrek integratu beharko lukeela bere baitan fenomeno erlijiosoa ere. Ez dakit nik nola, zerbait bigarren mailakoa edo, historia zaharrean ageri den baliorik ez duen ilusio-ren bat (aztiak jucio sinteticoak a priori egiteko bilatze ezinez-koa). Agian marxismoan erraten den moduan kultura materialaren superestrutkura bezala, eta egia izan daiteke, bai-na hemen ere topo egiten dugu, nik behintzat bai, erlijio mo-noteistarekin, salbuespen batekin. Beste erlijioak agian hortara

garatuak dira, baina errevelazio batekin hasten den erlijioa ez da cultura orientalaren superestruktura bat, iniziativa Jainkoarengandik baitator, eta Jainko horrek seinaleak egiten ditu, bazuetan admirableak, Bere mezua egiazkoa dela demostratzeko nonbait han.

Ematen du, beste aldetik, ezen filosofo katolikoak desagertuak direla. Badirudi etsita daudela, lerrotuta ere, filosofia ospe handiko horien aurrean. Eta ez da harrizkoa errepasatzen bada filosofiaren historia, hainbeste dira falazietan eroriak ezen beldurra ere ematen du ezer errateak. Berriro hanka sartuko dugulako beldurra dugu.

Baina lotsa ez da aholkulari ona, beti atzeraka ibiltzea filosofiaren alorrean, lotsa dugulako hanka sartzeko. Beldurra somatzen baitut nik ezen hanka sartuz gero kalteak handiagoak diratekeela onurak baino, eta horren beldurra paralizatuak ditu filosofo katolikoak. Oso prudenteak bihurtu dira demostrazioak egin behar direnean, eta diote ez dagoela gaur egun demostraziorik zerbait Jainkoaz egin daitekeenik. Barneratuta daukate nonbait tomismoan ez dagoela demostrazio sendorik, egiazkorik (Platonen intuizioa ez da demostrazioa, oso ona, ezin hobea ere, bada ere), nahiz eta abade izateko filosofian hori estudiatzen duten, hori eta horren ostean garatzen joan diren filosofia materialistak (aurrekoa superatua dutenak, omen).

Baina ni ez nago paralisiak jota. Egia da ezen espresatzen naizela hizkuntza oso minorizatu batean (euskara zorioneko hau!), eta horren aterpean izkutatzen naizela nonbait han (ni ez nago obsesionatuta euskarakin, gustoko dut baina ez ditut nire arropak urratzen filologoendako geratzen bada). Zeren zenbatek irakurriko ditu nire izkribuak?. Ia inork ez. Eta hor badaiteke valiente izan, ez dago ia arriskurik. Eta handiak bota euskaraz. Total, ezezagun izaten jarraitzen dut. Eta nire mezua, nire filosofia, ez da ia inora iristen, antzua gertatzen da neurri

handian. Eta hori egia da, baina ez osoro, eta euskaraz ere zuhurra izatea ez da soberan dagoen bertutea, izkutuan egina agerian ikusiko baita Jesusen arabera.

Hala ere nik badut esperantza ezen nonbaitera helduko ahal dela nire pentsamendua. Eta badut maisurik hoberena, ataka gaizto guzietatik ateratzeko giltza duena, eta hori da Jesus. Berriro ere, oraingoan filosofian, Haren baitan dut irtenbidea aurkitzen. Harek ditu irtenbide guztiak, eta ez da alferrikoa Harengana itzultzea laguntza eske. Noan nire metafisikaren zientzia garatzera.

Habermas ospetsuak dio pentsamendu postmetafisikoaren garaia heldua dela. Eta zientzia metafisikoa lurperatu zuena Kant da (filosofiaren historia ezagunenetan, ospetsuenetan, hori afirmatzen da). Egia da ezen zientzia a prioristikorik ezin garatu daitekeela kosmos honetan (fisika ez da hazten a priori, eta matematica ere ez), eta metafisika ondo zimentatzeko materiaren a priorizko ezagutzak behar dira, ezagutza universalak beraz. Eta kosmos material honetan ez da halakorik. Kanti jarraituz ondorioztatu behar da zientzia metafisikoa ezinezkoa dela. Eta guretzat hala da. Beraz, intelektualismo moralaren aldekoak bagara, ondorioztatzen da Kanten ikerketatik ezen denok garela gaiztoak, maila berean ez izan arren. Eta ez dagoela irtenbiderik, inperativo kategoriko hura, Jainkorik ez badago, zer da?. Irtenbidea?. Arrazoi garbia izanik ezagutza universalak, hortik deduzitzen dela etika normatiboa, baina misterio santu hori inexistentea bada, ondorioztatu bada halako farorik ez dagoela inon cosmos honetan, eta cosmos honetatik harutzago ez dagoela ezer, zer ondorioztatu daiteke?: bide horrek ez duela erremediorik.

Baina Kantek, eta jarraitu diotenek bide hortatik, eurek egina oso ondo teorizatua dagoena terminologiaren esparruan batez ere, Kantek ez zuen kontuan hartu, zentratuz pertsonaia historikoa ere den Jesusen biografian, Kantek ez zuen kontuan

hartu gertatu izan diren gertakizun batzuk, eta horiek dira Jesusek egiten zituen signoak. Eta signoek amankomunean dute eskema hauxe (modu errezean argitzeko): esan eta izan. Eta horrek erakusten du aurretik, a priori, Jesusek erabakitzen zuela. Ez da bakarrik zekiela zer gertatuko zen, erabaki egiten zuen zer gertatuko zen. Ez zen profeta soil bat bakarrik, gehiago zen (da den hori). Eta erabakitzen duenak indukzio perfektua eginez badaki zer gertatuko den, a priori, eta horrek erran nahi du ezen Jesusek baduela ezagutza a prioristikoa, ezagutza universalala, esperientia material orotik gain dagoena. Eta halako ezagutza edukitzeak, Kanten terminologia hartuz, erran nahi du metafisika posible bazaiola Jesusi. Jesusek, hitz batean, bazuen metafisikaren zientziarik, eta metafisika okupatzen da Jainkoaz, askatasunaz eta ezhilkortasunaz, Kanten arabera. Jesusen arabera beste kosmos batean dagoen Zeruetako Erresumaz, Poncio Pilatori esan zion hori. Lektoreak agian badaki to mismoan Jainkoaren esistentziaren demostrazioak a posteriori eginak direla, nik, ostera, a priori egiten dut nire demostrazioa. Osagarriak gara beraz; nago ezen nireak osatu egiten duela eskolastikan fundamentu badaezbadakoakin eraikia (Platonen intuicioia perfectua izango da, baina intuicio bat ez da demostracioa).

Zergatik ez dute kontuan hartzen historiako pertsonaia hau?. Niretzat signoekin altxatzen da beste pertsonaia historiko guzien gainetik, eta konparaziorik ere ez dago. Jesus da nagusi eztabaidaezina. Ebangelioetan eman zaigu Haren hizpidea oso modu fragmentarioan, eta ni ibili izan naiz egiazko hizpide haren bila, baina nahasia atera izan zait hizpide miragarri hura imitatzeke ahaleginetan ibili naizelarik, nirea falaziazkoa da usualki, eta kontrastea Haren hizpidearekin handia da, ahoa zabalik niri, berba egin izan dudalarik, ez zait inor geratu, ezta geratzen ere.

Eta Jesus, berriro ere, da nire harkaitza zeinari lotu egiten naizen baita filosofia egiterakoan ere. Bere Erresuma ez da

kosmos honetakoa, cosmos honetan invisiblea da, insensiblerik usualki. Desolazioetan ez dut sentitzen hemen, nirekin dagoenik, abandonatua sentitzen naiz, baina hala ere, halako kasuetan, baditut ebangelariak, hari buruz lekukotasuna eman zutenak, eta oraingoan signoei erreparatuz lortzen dut erdi aroan hainbeste erabilitako metafisika zaharkitua, gaizki zimentatua, bere posibilitate erreala teorizatzea. Gaixo dagoen metafisika kristau hura osatu egiten dut materialismotik hasiz nire ikerketak.

Ez gaude pentsamendu postmetafisikoan, ez horixe. Agian gehien ospatuak direnen artean halaxe usteko da. Baina ni, nire txikitasunean, ez nago pentsamendu postmetafisikoan, ez eta hurrik eman ere!. Nik zientzia metafisikoaren posibilitatea ikasten dut badagoela, baina Jesusek soilik ematen du klavea. Haren baitan sinesten ez dutenak konprenitzen ditut, eta ez dute beste biderik Kantek markatua baizik, hau da, materialismo ateo, molde aunitzetan adieraz daitekeena. Eta konprenitzen ditut zeren Jesusik barik ez baita ikasten halako posibilitaterik kosmos honetan. Zientzia materialak sekula ezin baitu a prioristikotasunik iritsi (Kantek ez zuen arrazoirik zioenean Newtonen fisica printzipio a prioristikoetatik garatua zela, gure ezagutza oro, matematikoa ere, esperientziatik dator, eta ezagutzaren teoriak oro, euren erroetan, sokratismora laburbiltzen dira ondo ikertzen badira).

Pertsonaia historiko guztien artean Jesus ez baldin bada aintzat hartzen teorizazio materialista hutsak ere oso logikoak dira. Kosmos material honetan gaude, ez gaude Zeruatako Erresuman, eta signoak ez dira ikusten normalean. Hain dira eskasak ezen Aristotelesek, teista zenak, erraten zuen Jainkoak ez duela parte hartzen mundu honetako gauzetan, eta zentzuduna zen filosofoetan inor izan ez den moduan. Konprenigarria da Kanten ostean halako ondorioetara iristea filosofiaren olatuaren buruan dabiltzaneren artean. Baina ez da konprenigarria Jesus ezagututa ere haren signoak ez hartzea estudiogai. Zer-

gatik ez?. Eta hori ez diet bakarrik ateo materialistei galdetzen, baita galdetzen diet ere eskrituristei, apaizak direnak.

Hitzaldi batean niri Donostiako elizbarrutiko apaiz batek esan zidan horrek, nire ondorio erlazioak, ez zuela importantziarik, ez zidan astirik ere eman berba egiteko. Eta aurretik errana zidan jakintsua nintzela, bada jakintsu iruditzen banintzaion nola moztu zidan nire parte hartzea debate hartan?. Nik orain oroitzen naiz san Pabloren erran bat non zioen Jainkoak humilak ere aukeratzen dituela, eroak ere, inor harrotu ez dadin Haren aurrean. Baina nik aukeratu dudan fedebidea, dirudienez, ez da eskriturista horien gustokoa, bistan dago, haiek, niretzat, fede motivo argi bat deuseztatzen ari dira, nola egongo dira nirekin nik euren argumentazio ilustratu “arrazoizkoak” hankaz gora jartzen baditut?. Zeren ematen baitu ezen arrazoi naturalakin ez datorren fenomeno, miraria adibidez, gutsietsi eta aintzat hartzekoa ez dela (mitoaren mailan estudiatzen da), hortik Jesusen gloria antzematen bada ere, eta ez nik bakarrik, ero desterratu honek, baizik eta Bere diszipuluek ikasten dute Haren gloria horrela (Canaango esteguetako pasadizoa ikusi). Baina ez didate jaramonik egiten, bakarrik behin eman zidan Madrilgo apaiz batek arrazoa, eta hori izan zen nik asko admiratu dudan katedratikoaren esan bat kontatu niolako non zioen gizona dela izaera bat ausentzietakoa, eta ez presentzietakoa, eta hori esan eta gero nire tesia laburbildu nion, eta orduan hari interesantea iruditu zitzaion nire argumentaziobidea. Begien bistan baitago neutrala den edonorentzat signoetan badela aurkitzen Jesusen gloria.

Zertan bihurtzen dute gure fedea?, maitasunezko poemak idazten zer demostratzen dute?. Maitasunari buruzko liburuak idazten, oso poetikoak eta hola?. Maitasuna, diot nik, sentimendu pribatua izan daiteke, eta gertatu daiteke halako sentimentuakin dabilen batek (ni ez naiz honetan salbuespena) buelta bat ematea sufritzen dagoen batekin ez gurutzatzearren. Eta halako liburuekin ez dute ezer demostratzen. Ni jonki iza-

na naiz eta badakit farmako diferenteekin sentimentu diferentek, paradisiakoak ere, edukitzen (garunako fenomeno biokimikoak ikusten ditut nik hor). Ez dut horregatik bide mistikoak albo batera uzten, baina ez dira demostragarriak.

Hor daude eskrituristak, eta esaten dute ebangelioetan kontraesanak daudela, eta hasten dira (hitzaldietan egona naiz) esaten pasaje batzuk poetikoak direla, hau da, ez testimonio egiazkoak. Beste pasajeak dakusate direla intentzio teologikoa-rekin eginak, ez dira beraz testimonioak, beste pasaje bat diote gezurra dela Jesusek esan zuela hori (hau da Bera dela bidea, egia eta bizia), eta hola. Eta nik behin galdetu nion bati ea zer tendentzia zegoen estudio horietan, akaso ebangelio kanonikoak besteen mailara ekartzea?, apocrifoen mailara?. Hori oso larria litzateke. Beste batean, orain akordatzen naiz, batek, estudioso batek, esan zuen ezen Moisesen garaian hebrearrek Itsas Gorria zeharkatu zutela segurutikan zona vadeable bate-tik. Eta pentsatzen dut badagoela halako amore emate bat Elizako hierarkiaren parte batean materialismo esceptikoari, ilustrazioaren arrazoi antisobrenaturalistari. Beste behin entzun nuen hitzaldi batean ezen aingeruak ere hebrearrek Babilonian hartu zituztela, ez direla benetako pertsonajeak euren erlijioan, gurean, hain justu.

Lagunok, ondorioztatu behar dugu gure fedea testimonio faltsuetan oinarrituta dagoela?.Hori ondorioztatu behar dut?. Denok gara diferente, eta ni honela aritzen naiz teorizatzen. Ez daukat ezer beste moduetan dabilzananen kontra. Baina aintzat har bedi nire ikerbidea ere. Laburbilduta honela teorizatzen dut: badirudi, ikusi dudanari erreparatuta, Elizako eskrituristek Historia Sakratua irakurtzerakoan aurkitzen dutela errevelazioa datorrela lagunduta seinaleekin, baina seinala horiek ez datoz bat arrazoi naturalarekin (Voltaire anticlerikalaren arrazoi ilustratuarekin) eta orduan, makurtuz gaur egungo joera zientifis-tei, modu askotan esan daiteke, minusvaliatu egiten dituzte seinale horiek, ignoratzeraino ere. Nik, ostera, seinaleetan ikas-

ten dut errevelazioaren mezua egiazkoa dela. Begien bistan dago, horregatik dira seinaleak, demostrazioak direlako, misterio santu baten demostrazioak, misterio santu hori ez bazaigu irakatsi ere egin, baina badute demostrazioaren izaera hori, egin daitekeena modu sinplean ala, nik egiten dudan moduan, dudan aparatu logikoarekin, ez dena logika departamenduburu batena, bistan dagoenez. Baina ziur nago hur ematen diodala problemari.

Behin abade bati, hitzaldi batean galdetu nion ea zein zen mirariaren definizioa, eta harek erantzun zidan miraria zela gertakizun bat zientziak ezin konprenitu dezakeena. Nik definizio hori borobildu egin dut, eta esaten dut ezen miraria dela gertakizun bat zientziak inoiz konprenitu ezin dezakeena. Asko aurretatu arren: egin dezagun zientzia fikzioa, eta nik hor ere miraria orduko zientziak ezin konprenituko duela diot.

Eta ez naiz milagrero bat, begien bistan dago ezen Jainkoa ez dela emankorra mirariak egiten. Nik sekula ez dut bat ikusi. Baina Jainkoa bada providenciala, badu mundu honetan errevelatzen bere mezua, eta Bera pertsonalki ere gure artean egona da, denbora gutxi, baina egona. Eta Elizaren historian hor dugu, adibidez, Lourdes, eta Fatima ere. Nik behin telebistan ikusi nuen paralitiko izandako bat, Lourdesen egona zen, pasiatzen sala batean.

Baina miraria oso arraroa da generalean, nahiz eta horrek ni ez nakarren ondorioztatzera subestimatu behar direla halako getakizunak. Balio dute argumentatzeko, eta nik hori egiten dut filosofia lehena salbatzen dudanean, eta salbatu egiten dut mirariak estudiantuz dudan ezagutza logiko apur hori erabiliz, eta daukat ezen zilegi dela guztiz.

Nik ez dut Jesusen gloriarik ikasten soilik humano bezala estudiantzen badut. Jesusen gloria ikasten da Haren signoak ikertuz eta estudiantuz. Signo horiek ignoratuz eta gutsietsiz ez zaio Jesusi gloria sobrenaturalik ikasten eta bai ikasten zaio

soilik personaia onbera bat, orientekoa, bere bihotza besteei zabaldu ziena, eta ondorioz amaiera tragikoa eduki zuena, era-kusten diguna ez izaten beraren moduan, gerta ez dakigun gertatu zitzaiona, gertatzen zaiena euren bihotza biluztu eta zabaltzen dutenei. Besterik ez bide esceptiko hortatik, bide voltaireano hortatik.

Baina nahi bada Jesus estudiatzea gizon bezala hor ere ez genuke ahaztu behar dela Bere amaren modukoa, hau da, falta gabea, pekatu gabea, fallu gabea, falaziarik gabea, eta filosofiatik ikusita orduan Jesus humanoa da izan den eta izango diren filosoforik handiena, egia garbia dariolako Haren mingai-netik, beste guztiongatik ezin esan daitekeena, jakina den moduan.

Niretzat ezin estudiatu daiteke Jesus soilik gizon edo soilik Jainko bezala, alde bi horiek oso lotuta ageri baitira eskriturretan, eta misterio santua delako, eta misterioez badaitezke ondo asmatutako metaforak eta holako esan, baina ez gehiago.

Komentatu nahi nuke gauza bat. Behin apaiz batek, eta ez bera bakarrik, zioen hitzaldi batean nola Jesus bere burua zein zen deskubritzen joan zela poliki poliki, baina, nik diot, hori hola izan bazen automatikoki deduzitzen ahal da ezen Jesus ez dela Jainkoa, zeren Jainkoak ez baitu zein den deskubritzen, omniscientea baita. Gu ez gara omniscienteak, jakina denez, eta guk ez dugu gure buruaren ezagutza universalik, eta horregatik ezin izan gaitezke divino, eta, nik diot, ezta beharrik ere ez dugu. Promesa bat dugu ezen egia osora, plenora, ailegatu-ko garela...hori bai.

Amaitzeko laburbilduta hauxe esango dut: nire irudiko eskrituristek, oso lan polita egiten dutenak ostean, itsatsi zaien joera "ilustratu" hori albo batera utzi beharko lukete historia, batez ere errevelazioaren historia, ikertzerakoan, eta hortara errevelazioarekin batera agertzen diren seinaleak aintzat hartu, behar duten garrantziaz ohartuz, ez hartu halakoak deskriba-

tzen direnean legendarioak bezala, edo mitologikoak (gezurrezkoak), horretara positivisten bidea hartzen baita, eta bide hortatik ezin egin daiteke demostraziorik ezer sobrenaturala denaz, baina aldi berean milagrero izan ez ditezela, jakina (lana ere egin beharko dugu erregular), eta gutxiago oraindik, nigromante, esoterista edo holakoren bat.

*Roman Garmendia.*